Pertsonek, profesionalek edo erakundeek adingabeen balizko arrisku- eta/edo babesgabetasun-egoerei buruz egindako komunikazioei erantzutea, eta komunikazio horiek aztertu eta baloratzea, babes bereziko premiaren adierazlerik badagoen eta Gizarte Ekintza Sailak esku hartu behar duen zehazteko.

## NOTIFICACIÓN Y RECEPCIÓN

Atender las comunicaciones realizadas por personas, profesionales o instituciones relativas a posibles situaciones de riesgo y/o desprotección de personas menores, procediendo a su análisis y valoración con el fin de determinar si concurren indicadores de necesidad de especial protección, y si corresponde su intervención por parte del Departamento de Acción Social.

## IKERKETA

Kasua udal-eskumenekoa bada, gizarte-laneko profesional arduraduna harremanetan jarriko da familiarekin, eta ikerketa-prozesuari ekingo dio, jakinarazitako edo antzemandako arrisku-egoera eta/edo babesgabetasun-egoera egiaztatzeko, bai eta egoera horren larritasuna, errepikapena eta adingabearen osasunerako eta/edo osotasunerako arrisku-maila aztertzeko ere. Era berean, hala badagokio, premiazko babes-neurriak hartzeko beharra balioetsiko du.

## INVESTIGACIÓN

En los supuestos en que el caso sea de competencia municipal, la persona profesional de trabajo social responsable se pondrá en contacto con la familia e iniciará el proceso de investigación, con el fin de verificar la existencia de la situación de riesgo y/o desprotección notificada o detectada, así como de analizar su gravedad, la posible reiteración de la misma y el nivel de riesgo para la salud y/o la integridad de la persona menor. Asimismo, valorará la necesidad de adoptar, en su caso, medidas de protección de carácter urgente.

Era berean, Gizarte Zerbitzuei, haien eskumenei eta esku hartzeko prozedurari buruzko informazioa emango dio familiari, erreferentziazko profesionalaren rola bere gain hartuta.

Igualmente, facilitará a la familia información sobre los Servicios Sociales, sus competencias y el procedimiento de intervención, asumiendo el papel de profesional de referencia.

Irizpide teknikoak hala eskatzen duenean, sorta honen xede diren zerbitzuak aktibatuko dira.

Cuando el criterio técnico lo aconseje, se procederá a la activación de los servicios objeto de este lote.

## EBALUAZIOA ETA BALORAZIOA

Fase honetan, kasuaren erreferentziazko gizarte-laneko profesionalak balorazio-prozesua

## EVALUACIÓN Y VALORACIÓN

En esta fase, la persona profesional de trabajo social referente del caso podrá iniciar el

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

hasi ahal izango du, eta familiari informazioa eta orientazioa eman ahal izango dizkio, esku-hartze prozesuan bere onarpena eta lankidetza sustatuz.

proceso de valoración, así como informar y orientar a la familia, promoviendo su aceptación y colaboración en el proceso de intervención.

Kasua balorazio-programara bideratu ahal izango da, honako helburu hauekin:

El caso podrá ser derivado al programa de valoración con los siguientes objetivos:

– Arrisku-egoera eta/edo babesgabetasun-egoera agertzea eta mantentzea eragin duten kausak identifikatzea, bai eta adingabeen garapen egokiari eragin diezaioketen arrisku-faktoreak ere.

– Identificar las causas que han motivado la aparición y el mantenimiento de la situación de riesgo y/o desprotección, así como aquellos factores generadores de riesgo que puedan afectar al adecuado desarrollo de las personas menores.

– Familiarekin esku hartzeko oztopo izan daitezkeen faktore defizitarioak zehaztea.

– Determinar los factores deficitarios que puedan constituir un obstáculo para la intervención con la familia.

– Esku-hartze prozesuan lagungarri izan daitezkeen eta familiaren zailtasunak konpontzen lagun dezaketen faktore babesleak identifikatzea.

– Identificar los factores protectores que puedan servir de apoyo en el proceso de intervención y que puedan ayudar a solucionar las dificultades del contexto familiar.

– Esku hartzeko helburuak ezartzea, ahultasun-faktoreak eta familia-sistemaren babes-faktoreak kontuan hartuta. Helburu horiek kasu-plan batean jasoko dira, eta plan hori, dagokion balorazio-txostenarekin batera, familiarekin esku hartzeko izendatutako taldeari bidaliko zaio.

– Establecer los objetivos de intervención, teniendo en cuenta tanto los factores de vulnerabilidad como los factores protectores del sistema familiar. Estos objetivos se recogerán en un Plan de Caso, que se remitirá, junto con el correspondiente informe de valoración, al equipo asignado para la intervención con la familia.

– Arazoaren kontzientzia-maila balioestea, bai eta guraso-figurek aldaketarako duten motibazioa ere.

– Valorar el grado de conciencia del problema y la motivación para el cambio por parte de las figuras parentales-marentales.

– Arrisku-egoera eta/edo babesgabetasun-egoera eragin duten familia-inguruabarrak aldatzeko aukerak aztertzea.

– Analizar las posibilidades de modificación de las circunstancias familiares que han dado lugar a la situación de riesgo y/o desprotección.

– Familiaren bilakaeraren pronostikoa eta proposatutako helburuak lortzeko aurreikusitako epeak baloratzea.

– Valorar el pronóstico de evolución familiar y los plazos estimados para la consecución de los objetivos propuestos.

ESKU-HARTZEA

Balorazio-fasea amaitu eta emaitzak familiari itzuli ondoren, Gizartean eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Zerbitzua eta/edo Zerbitzu Psikosoziala aktibatzea beharrezkotzat jotzen bada eta familiak berariaz onartzen badu, kasuaren ardura duen gizarte-laneko profesionalak Kasu Plana egingo du.

INTERVENCIÓN

Finalizada la fase de valoración y realizada la devolución de resultados a la familia, cuando se considere necesaria la activación del Servicio de Intervención Socioeducativa y/o Psicosocial, y exista aceptación expresa por parte de la familia, la persona profesional de trabajo social responsable del caso procederá a la elaboración del Plan de Caso.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
Tel. 943 004330
Gizarte ekintza

Kasu Plan horrek programaren koordinazioaren aldez aurreko baliozkotzea izan beharko du, eta esku hartzeko erreferentziazko esparru-dokumentua izango da. Balorazio-txostenaren eta Kasu Planaren bidez, atzemandako egoerari behar bezala heltzeko behar den informazioa emango zaio esku-hartze taldeari. Era berean, identifikatutako beharren arabera esku-hartzean parte hartuko duten profesionalak zehaztuko dira.

Erreferentziako profesionalak esku-hartzeaz arduratzen den taldeari aurkeztuko dio familia, eta harekin formalizatuko du parte hartzeko dagokion akordioa. Familiak esku-hartzea onartzea borondatezkoa izango da.

Kasuaren ardura duen gizarte-laneko profesionalak aldian behin berrikusiko du Kasu Plana, gehienez ere sei hilabeteko maiztasunarekin, lau urtetik beherako pertsonentzat, eta lau hilabeteko maiztasunarekin, adin horretatik beherakoentzat. Horretarako, esku hartzeko taldeak dagokion bilakaera-txostena bidaliko du (I. eranskina).

Berrikuspen horietan, baliabideen, zerbitzuen edo Kasu Planean jasotako beste alderdi batzuen esleipenean aldaketak egiteko beharra baloratuko da, ezarritako berrikuspen-protokoloaren arabera.

Berrikuspen bakoitzaren ondoren, bilera bat egingo da familiarekin, lortutako aurrerapenak kontrastatzeko, planaren balizko aldaketak adosteko eta, hala badagokio, esku-hartzearen jarraitutasuna edo amaiera baloratzeko.
Esku-hartzeak irauten duen bitartean, talde arduradunak prozesuaren garapen egokiari eragiten dion edozein gorabehera garrantzitsu jakinarazi beharko dio, ahalik eta lasterren, erreferentziazko profesionalari, ezarritako bideen bidez (II. eranskina). Era berean, gorabehera horiek bilakaera-txostenetan sartu beharko dira.

ITXIERA

Kasuaren ardura duen gizarte-laneko profesionalak erabakiko du familia bakoitzarekiko esku-hartzearen amaiera, programan ezarritako irizpideen arabera, talde esleipendunak bidalitako txostenak oinarritzat hartuta eta Kasu Planean zehaztutako helburuen betetze-maila lehenetsita.

Dicho Plan de Caso deberá contar con la validación previa de la coordinación del programa y constituirá el documento marco de referencia para la intervención. A través del informe de valoración y del propio Plan de Caso, se facilitará al equipo de intervención la información necesaria para el adecuado abordaje de la situación detectada. Asimismo, se determinarán las figuras profesionales que participarán en la intervención en función de las necesidades identificadas.
La persona profesional de referencia presentará a la familia al equipo encargado de la intervención y formalizará con ella el correspondiente acuerdo de participación. La aceptación de la intervención por parte de la familia tendrá carácter voluntario.
El Plan de Caso será objeto de revisión periódica por parte de la persona profesional de trabajo social responsable del caso, con una frecuencia máxima de seis meses para personas menores mayores de cuatro años y de cuatro meses para menores de dicha edad. A tal efecto, el equipo de intervención remitirá el correspondiente informe de evolución (Anexo I).
En dichas revisiones se valorará la necesidad de introducir modificaciones en la asignación de recursos, servicios u otros aspectos contemplados en el Plan de Caso, de conformidad con el protocolo de revisión establecido.
Tras cada revisión, se mantendrá una reunión con la familia a fin de contrastar los avances alcanzados, acordar las posibles modificaciones del plan y valorar, en su caso, la continuidad o finalización de la intervención.
Durante el desarrollo de la intervención, el equipo responsable deberá comunicar a la persona profesional de referencia, a la mayor brevedad posible, cualquier incidencia relevante que afecte al adecuado desarrollo del proceso, mediante los canales establecidos (Anexo II). Asimismo, dichas incidencias deberán incorporarse a los informes de evolución.

CIERRE

La persona profesional de trabajo social responsable del caso determinará la finalización de la intervención con cada familia, conforme a los criterios establecidos en el programa, tomando como base los informes remitidos por el equipo adjudicatario y priorizando el grado de cumplimiento de los objetivos definidos en el Plan de Caso.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

Talde esleipendunak esku-hartzearen azken txostena egingo du (III. eranskina), gehienez ere hilabeteko epean, amaitzen denetik zenbatzen hasita.
Gizarte Ekintza Saileko kasuaren arduradunak amaitutzat eman ahal izango du esku-hartzea, besteak beste, honako arrazoi hauetakoren batengatik:

- Kasu Planean ezarritako helburuak betetzea.
- Arrisku eta/edo babesgabetasun adierazleak desagertzea edo nabarmen murriztea.
- Adingabea beste udalerri batera eramatea.
- Familiaren lankidetzarik eza.
- Kasua bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetara edo zerbitzu espezializatuetara bideratzea.

El equipo adjudicatario elaborará el informe final de la intervención (Anexo III) en el plazo máximo de un mes desde la finalización de la misma.
La responsable de caso del Departamento de Acción Social podrá dar por finalizada la intervención, entre otras, por alguna de las siguientes causas:

- Cumplimiento de los objetivos establecidos en el Plan de Caso.
- Desaparición o reducción significativa de los indicadores de riesgo y/o desprotección.
- Traslado de la persona menor a otro municipio.
- Falta de colaboración de la familia.
- Derivación del caso a servicios sociales de atención secundaria o especializados.

## 2.1.5- Lokala eta ekipamendua

Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eta familiei arreta emateko orduan hurbiltasuna errazteko, enpresa esleipendunak lokal egokia eta behar bezala hornitua eduki beharko du, Pasaian edo Oarsoaldean edo Donostialdean, programa behar bezala garatzeko.

Halaber, erakunde esleipendunak bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabide material guztiak eman beharko dizkio talde profesionalari, besteak beste, ekipamendu informatikoa, telefonia, bulegoko materiala eta zerbitzua behar bezala emateko behar diren baliabide guztiak.

Kontratua formalizatzeko unean erakunde esleipendunak ez badu lokal hori, bi hilabeteko gehieneko epean egiaztatu beharko du lokala baduela.

Osagarri gisa, udal-titulartasuneko espazioak erabili ahal izango dira unean uneko premiei erantzuteko, Gizarte Ekintza Saileko langileek eskatu eta erreserbatu ondoren.

## 2.1.5- Local y equipamiento

Con el fin de garantizar la calidad del servicio y favorecer la proximidad en la atención a las familias, la empresa adjudicataria deberá disponer de un local adecuado y debidamente equipado, ubicado en el municipio de Pasaia o en las comarcas de Oarsoaldea o Donostialdea, que permita el correcto desarrollo del programa.

Asimismo, la entidad adjudicataria deberá dotar al equipo profesional de todos los medios materiales necesarios para el desempeño de sus funciones, incluyendo, entre otros, equipamiento informático, telefonía, material de oficina y cuantos recursos resulten precisos para la adecuada prestación del servicio.

En el supuesto de que la entidad adjudicataria no disponga del citado local en el momento de la formalización del contrato, deberá acreditar su disponibilidad en un plazo máximo de dos meses desde dicha formalización.

De manera complementaria, podrán utilizarse espacios de titularidad municipal para atender necesidades puntuales, previa solicitud y reserva a través del personal del Departamento de Acción Social.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

## 2.1.6- Giza baliabideak

Deskribatutako esku-hartzeak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko, profesiona-taldeak profil hauek izan beharko ditu, gutxienez:

1- PROFIL PROFESIONALAK

Indarrean dagoen berdintasun-legea betez, lantaldean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da.

a) Psikoterapeutaren profila (Gipuzkoako Gizarte Esku-hartzearen Hitzarmeneko 1-III taldea)

Betebeharrak:

- Psikologiako unibertsitate-titulu ofiziala izatea (lizentziatura, gradua edo baliokidea), edo, atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion homologazioa duena.
- Haurren babesgabetasunari eta/edo familiekiko esku-hartzeari buruzko prestakuntza egiaztatua (gutxienez 250 ordu).
- Udal eta/edo foru administrazioaren eremuan haurren babesgabetasun arriskuan esku hartzen gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatua izatea.
- BALORA tresna ezagutzea eta maneiatzea, eta tresna horretara egokitzea eskatutako txostenak egitean.
- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztea, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren eta hura garatzeko araudiaren arabera.
- Euskarari dagokionez, euskaraz ondo komunikatzeko gaitasuna izan behar du, bai ahoz, bai idatziz. Zehazki, baldintza administratibo zehatzen agirian jasotako hizkuntza-baldintzak beteko ditu.

## 2.1.6- Recursos Humanos

Con el fin de garantizar la adecuada ejecución de las intervenciones descritas, el equipo profesional deberá estar integrado por perfiles que, como mínimo, reúnan las características que se detallan a continuación:

1- PERFILES PROFESIONALES

En cumplimiento de la Ley de igualdad vigente, se promoverá una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la composición del equipo.

a) Perfil de psicoterapeuta (Grupo 1-III del Convenio de Intervención Social de Gipuzkoa)

Requisitos:

- Estar en posesión de titulación universitaria oficial en Psicología (Licenciatura, Grado o equivalente), o de la correspondiente homologación en caso de titulaciones obtenidas en el extranjero.
- Formación acreditada en desprotección infantil y/o intervención con familias (mínimo 250 horas).
- Experiencia mínima acreditada de 3 años en intervención en situaciones de riesgo de desprotección infantil en el ámbito de la administración municipal y/o foral.
- Conocimiento y manejo del instrumento BALORA, debiendo ajustarse a este en la elaboración de los informes requeridos.
- Aportación de certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales, conforme a la Ley Orgánica 1/1996 de Protección Jurídica del Menor y su normativa de desarrollo.
- Con respecto al euskera, debe tener capacidad para comunicarse bien en euskera. Detalladamente, deberá cumplir con los requisitos lingüísticos que se recogen en el pliego de condiciones administrativas particulares.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

Eginkizunak:

- Esku-hartze psikoterapeutikoak eta/edo laguntza psikologikoko esku-hartzeak egitea, banaka (helduak eta adingabeak) eta/edo familian.
- Esku-hartzea koordinatzea kasu bakoitzean.
- Artatutako pertsonen egoera psikologiko, kognitibo eta erlazionalaren hasierako eta etengabeko balorazioa egitea.
- Aldizkako ebaluazioetan eta beste sistema batzuekin (soziala, sanitarioa, hezkuntzakoa, etab.) egiten diren koordinazio-bileretan parte hartzea.
- Eskatzen diren balorazio- eta esku-hartze-txosten teknikoak egitea.

Funciones:

- Realizar intervenciones psicoterapéuticas y/o de apoyo psicológico en modalidad individual (personas adultas y menores) y/o familiar.
- Coordinar la intervención en cada caso.
- Llevar a cabo la valoración inicial y continua de la situación psicológica, cognitiva y relacional de las personas atendidas.
- Participar en las evaluaciones periódicas y en las reuniones de coordinación con otros sistemas (social, sanitario, educativo, etc.).
- Elaborar los informes técnicos de valoración e intervención que sean requeridos.

b) Gizarte-hezitzailearen profila (Gipuzkoako Gizarte Esku-hartzearen Hitzarmeneko 2-III taldea)

b) Perfil de educador/a social (Grupo 2-III del Convenio de Intervención Social de Gipuzkoa)

Betebeharrak:

- Gizarte Hezkuntzako unibertsitate-titulu ofiziala (gradua edo baliokidea) edo lanbide-gaikuntza baliokidea izatea, indarrean dagoen araudiaren arabera, edo, atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion homologazioa duena.
- Haurren babesgabetasunari eta/edo familiekiko esku-hartzeari buruzko prestakuntza egiaztatua (gutxienez 150 ordu).
- Gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatua babesgabetasun-arriskuan dauden familiekin eta adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzen, udal eta/edo foru eremuan.
- BALORA tresna ezagutzea eta maneiatzea.
- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztea.
- Euskarari dagokionez, euskaraz komunikatzeko gaitasuna izan behar du, bai ahoz, bai idatziz. Zehazki, baldintza administratibo zehatzen agirian jasotako hizkuntza-baldintzak beteko ditu.

Requisitos:

- Estar en posesión de titulación universitaria oficial en Educación Social (Grado o equivalente) o habilitación profesional equivalente conforme a la normativa vigente, o de la correspondiente homologación en caso de titulaciones obtenidas en el extranjero.
- Formación acreditada en desprotección infantil y/o intervención con familias (mínimo 150 horas).
- Experiencia mínima acreditada de 3 años en intervención socioeducativa con familias y personas menores en situación de riesgo de desprotección en el ámbito municipal y/o foral.
- Conocimiento y manejo del instrumento BALORA.
- Aportación de certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales.
- Con respecto al euskera, debe tener capacidad para comunicarse bien en euskera. Detalladamente, deberá cumplir con los requisitos lingüísticos que se recogen en el pliego de condiciones administrativas particulares.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

Eginkizunak:

- Gizarte- eta hezkuntza-arloko banakako eta familiako esku-hartzeak garatzea, etxean zein komunitate-ingurunean.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze planak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea.
- Familiako trebetasunak, gaitasunak eta hezkuntza-ereduak baloratzea.
- Gizarte-baliabideei buruz informatzea, orientatzea eta aholkatzea, laguntza-sare formal eta informalen sarbidea eta erabilera sustatuz.
- Aldizkako ebaluazioetan eta lanbide arteko koordinazioan parte hartzea.
- Eskatzen diren gizarte- eta hezkuntza-arloko txostenak egitea.

Funciones:

- Desarrollar intervenciones socioeducativas individuales y familiares, tanto en el domicilio como en el entorno comunitario.
- Diseñar, ejecutar y evaluar los planes de intervención socioeducativa.
- Valorar habilidades, capacidades y modelos educativos familiares.
- Informar, orientar y asesorar sobre recursos sociales, promoviendo el acceso y uso de redes de apoyo formales e informales.
- Participar en las evaluaciones periódicas y en la coordinación interprofesional.
- Elaborar los informes socioeducativos que sean requeridos.

Eskatzen den lanbide-profila egokitzat jotzen da, agiri honetan aurreikusitako eginkizunen konplexutasun teknikoa kontuan hartuta; besteak beste, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen txosten teknikoak egitea, arrisku-egoerak baloratzea eta jarduketak udal-talde teknikoarekin koordinatzea.

El perfil profesional exigido se considera adecuado en atención al nivel de complejidad técnica de las funciones previstas en el presente pliego que incluyen, entre otras, la elaboración de informes técnicos de intervención socioeducativa, la valoración de situaciones de riesgo y la coordinación de las actuaciones con el equipo técnico municipal.

Funtzio horien izaera dela eta, berariazko unibertsitate-prestakuntza eta gaitasun tekniko nahikoa duten profesionalek esku hartu behar dute, egoera bereziki ahulean dauden gizarte-hezkuntzako esku-hartze prozesuak diseinatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeko.

La naturaleza de dichas funciones requiere la intervención de profesionales con formación universitaria específica y capacitación técnica suficiente para el diseño, desarrollo, seguimiento y evaluación de procesos de intervención socioeducativa en contextos de especial vulnerabilidad.

Era berean, lanbide-egokitzapen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean xedatutakoan oinarritzen da. Lege horren zioen azalpenean honako hau ezartzen da:

Asimismo, este encaje profesional se fundamenta en lo dispuesto en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales del País Vasco, cuya exposición de motivos establece que:

"(...) gizarte-langileei berez dagozkien eginkizunei gehitu behar zaizkie gizarte-hezitzaileak aspalditik garatzen ari diren gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzu eta prestazioetatik eratorritakoak; gizarte-hezitzaile horiek gizarte-langileekin batera osatuko lukete Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarrizko kidego profesionala."

“(...) a las funciones propias del trabajo social de los trabajadores y trabajadoras sociales, deben incorporarse las derivadas de los servicios y prestaciones de carácter socioeducativo ejercidas por los educadores y educadoras sociales que ya se vienen desarrollando desde hace tiempo que, junto con los y las anteriores, conformarían el cuerpo profesional básico del Sistema de Servicios Sociales.”

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

c) Taldeko arduradun-koordinatzailea

Erakunde esleipendunak taldeko arduradun bat izendatu beharko du, udaleko Gizarte Zerbitzuekin solaskide gisa jardungo duena, kasuak jaso eta esleitzeko, bai eta zerbitzuaren koordinazio orokorrerako ere.

Giza edo gizarte-zientzien arloko erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate-titulua izan beharko du lantaldearen arduradunak. Taldeko kide batek hartu ahal izango du bere gain erantzukizun hori, eta berariaz izendatu eta identifikatu beharko da.

2- ORDEZKAPENAK

Langileen bajak gehienez ere hamabost egun naturaleko epean bete beharko dira, eta zerbitzuaren jarraipena bermatuko da beti.

Plegu honetan ezarritako baldintza berak betetzen dituzten profesionalekin egin beharko dira ordezkapenak.

Langile berri orok eskainitako trebakuntza-mailaren parekoa izan beharko du, eta kontratuaren udal-arduradunak aldez aurretik baliozkotu beharko du, dagokion curriculum vitaea bidalita.

Ordezkapenak berandu betetzeagatiko zigorrak

Esleipendunak zerbitzuaren jarraitutasuna bermatu beharko du, langileen absentziak estaliz, gehienez ere hamabost egun naturaleko epean, plegu honetan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren fakturazioa benetan emandako orduen arabera egingo denez, ez dira inola ere ordainduko ordezkapenak ez betetzeagatik egin ez diren zerbitzu-orduak.

Aurrekoari kalterik egin gabe, estaldura-epea betetzen ez bada, zigorrak ezarriko dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean aurreikusitakoaren arabera, honela:

c) Responsable-Coordinador/a del equipo

La entidad adjudicataria deberá designar una persona responsable del equipo que actuará como interlocutora con los Servicios Sociales municipales para la recepción y asignación de casos, así como para la coordinación general del servicio.

La persona responsable del equipo deberá estar en posesión de titulación universitaria media o superior en el ámbito de las ciencias sociales o humanas. Esta responsabilidad podrá ser asumida por una persona integrante del equipo, debiendo quedar expresamente designada e identificada.

2- SUSTITUCIONES

Las bajas del personal deberán ser cubiertas en un plazo máximo de quince días naturales, garantizando en todo caso la continuidad del servicio.
Las sustituciones deberán realizarse con profesionales que cumplan los mismos requisitos establecidos en el presente pliego.

Toda nueva incorporación deberá contar con un nivel de capacitación equivalente al ofertado, debiendo ser previamente validada por la persona responsable municipal del contrato, mediante la remisión del correspondiente currículum vitae.

Penalidades por retraso en la cobertura de sustituciones

El/la adjudicatario/a deberá garantizar la continuidad del servicio mediante la cobertura de las ausencias del personal en el plazo máximo de quince días naturales, conforme a lo establecido en el presente pliego.

Dado que la facturación del contrato se realizará en función de las horas efectivamente prestadas, no se abonarán en ningún caso las horas de servicio no realizadas como consecuencia de la falta de cobertura de las sustituciones.

Sin perjuicio de lo anterior, el incumplimiento del plazo de cobertura dará lugar a la imposición de penalidades, de conformidad con lo previsto en la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, en los siguientes términos:

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

- Ordezkapenaren estaldura efektiboa atzeratzen den egun natural bakoitzeko, dagokion aldian eman beharreko zerbitzu-orduen zenbatekoaren % 5eko zigorra aplikatuko da.

- Atzerapena bost egun naturaletik gorakoa bada edo behin eta berriz gertatzen bada, aurreikusitako orduen zenbatekoaren % 10era arte igo ahal izango da zigorra, zerbitzuari eragindako kaltearen larritasuna kontuan hartuta.

- Ez-betetzeak behin eta berriz eginez gero edo zerbitzuaren jarraitutasunean eragin nabarmena izanez gero, ez-betetzea larritzat jo ahal izango da, kontratazio publikoaren araudian aurreikusitako ondorioekin, kontratuaren suntsiarazpena barne, hala badagokio.

Zigorrak ezartzeak ez du zerikusirik esleipendunak zerbitzua behar bezala ematea berehala berrezartzeko duen betebeharrarekin.

- Por cada día natural de retraso en la cobertura efectiva de la sustitución, se aplicará una penalidad equivalente al 5 % del importe de las horas de servicio que hubieran debido prestarse durante el periodo afectado.
- Cuando el retraso supere los cinco días naturales o tenga carácter reiterado, la penalidad podrá incrementarse hasta el 10 % del importe de las horas previstas no prestadas, en atención a la gravedad de la afección al servicio.
- La reiteración de incumplimientos o su impacto significativo en la continuidad del servicio podrá dar lugar a la calificación del incumplimiento como grave, con las consecuencias previstas en la normativa de contratación pública, incluida, en su caso, la resolución del contrato.

La imposición de penalidades será independiente de la obligación del adjudicatario de restablecer de forma inmediata la correcta prestación del servicio.

## 2.1.7- Esku-hartzearen mugak eta ordu-dedikazioa

Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak eta/edo esku-hartze psikosozialak gehienez 12 hilabeteko iraupena izango du, eta 6 hilabetera arte luzatu ahal izango da.

Salbuespen gisa, eta Gizarte Ekintza Saileko haurtzaroaren programaren arduradunak arrazoitutako balorazioa egin ondoren, beste 6 hilabetez luzatzea erabaki ahal izango du.

Denboren banaketa faseka

1. Aurkezpen-fasea

Gehienez ordubeteko dedikazioa ezarri da, honela banatuta:

- 30 minutu kasua esku-hartze taldearen testuinguruan kokatzeko.
- 30 minutu esku hartzeko taldea familiari aurkezteko.

## 2.1.7- Límites de intervención y dedicación horaria

La intervención socioeducativa y/o psicosocial tendrá una duración máxima de 12 meses, con posibilidad de una prórroga de hasta 6 meses.

De forma excepcional, y previa valoración motivada de la persona responsable del programa de infancia del Departamento de Acción Social podrá acordar una segunda prórroga de hasta 6 meses adicionales.

Distribución de tiempos por fases

1. Fase de presentación

Se establece una dedicación máxima de 1 hora, distribuida del siguiente modo:

- 30 minutos para la contextualización del caso al equipo de intervención.
- 30 minutos para la presentación del equipo de intervención a la familia.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

2. Esku hartzeko fasea

a) Esku-hartze terapeutikoa

- Familia-terapiako saioak: gehienez bi saio hamabostean behin, bakoitza ordubetekoa.
- Banakako terapia-saioak: astean saio bat gehienez, ordubetekoa.
- Banakako eta familiako esku-hartzeak konbinatzen diren kasuetan, ezin izango da, 4 asteko epean, muga hau gainditu:
  - Familia-saio 1
  - 2 saio indibidual

Oharra: ez da aurreikusten koterapia modalitateko saioak egitea.

b) Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea

Hezkuntza-figuraren dedikazioa astean gehienez 4 ordukoa izango da familia bakoitzeko.

Koordinazioak esku-hartzean zehar
Esku-hartze fasean, koordinazio-jarduera hauek aurreikusi dira:

- Sei hilean behin, gutxienez, kasuaren ardura duen gizarte-laneko profesionalaren eta esku hartzeko taldearen arteko koordinazioa.
- Sei hilean behin, gutxienez, inplikatutako beste profesional batzuekin koordinatzea (hezkuntza- eta osasun-arloa edo beste batzuk), kasuaren erreferentziako profesionalak deituta eta baimenduta.
- Sei hilean behin, gutxienez, Gizarte Ekintza Sailaren bulegoetan koordinatzea, adingabearen adinaren eta/edo familia-ezaugarrien arabera, eta ondoren familiarekin bilera bat egitea, ahal dela jardunaldi berean.
- Beharrezkotzat jotzen diren koordinazio gehigarri guztiak, Gizarte Ekintza Sailaren irizpidearen eta/edo baimenaren arabera.

2. Fase de intervención

a) Intervención terapéutica

- Sesiones de terapia familiar: máximo de 2 sesiones quincenales, de 1 hora de duración cada una.
- Sesiones de terapia individual: máximo de 1 sesión semanal, de 1 hora de duración.
- En los casos en que se combinen intervenciones individuales y familiares, no se podrá superar, en un periodo de 4 semanas, el siguiente límite:
  - 1 sesión familiar
  - 2 sesiones individuales

Observación: No se contempla la realización de sesiones en modalidad de co-terapia.

b) Intervención socioeducativa

La dedicación de la figura educativa será de un máximo de 4 horas semanales por familia.

Coordinaciones durante la intervención
Durante la fase de intervención se contemplan las siguientes actuaciones de coordinación:

- Una coordinación semestral, como mínimo, entre la persona profesional de trabajo social responsable del caso y el equipo de intervención.
- Una coordinación semestral, como mínimo, con otros profesionales implicados (ámbito educativo, sanitario u otros), convocada y autorizada por la persona profesional de referencia del caso.
- Una coordinación semestral, como mínimo, en dependencias del Departamento de Acción Social, en función de la edad de la persona menor y/o de las características familiares, seguida de una reunión con la familia, preferentemente en la misma jornada.
- Todas aquellas coordinaciones adicionales que se consideren necesarias, a criterio y/o autorización del Departamento de Acción Social.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

- Esku-hartze taldeak profesionalen arteko bi hileko barne-koordinazioa (terapia eta hezkuntza) egotzi ahal izango du, edo, hala badagokio, gainbegiratze-saio bat, bereziki gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeetan.

Esku-hartzea ixteko fasea

Esku-hartzea ixteko faseak gehienez ordubeteko dedikazioa izango du, honela banatuta:

- 30 minutu, kasuaren ardura duen gizarte-laneko profesionalak eta esku hartzeko taldeak batera aztertzeko, prozesuaren amaiera prestatzeko.
- 30 minutu familiarekin ixteko saiorako.

**2.1.8- Kasuak esleitzeko irizpideak**

Kasuak Gizarte Ekintza Sailak bideratuko ditu enpresa esleipendunera, programaren arduradunak Kasu Plana onartu ondoren.

Kasua bideratu ondoren, erakunde esleipendunak esku-hartzeaz arduratuko den talde profesionala proposatuko du, erreferentziazko gizarte-laneko profesionalak egindako kasu-planaren arabera.

Beste udalerri batetik datorren familia bat gizarte-heziketa eta/edo esku-hartze psikosozialeko programa batean artatzen ari bada eta bere bizilekua Pasaiako udalerrira lekualdatzen badu, profesional horiekiko esku-hartzearekin jarraitzeko baimena eman ahal izango da.

Era berean, salbuespen gisa eta behar bezala arrazoituta, hasiera batean proposatutako taldean sartuta ez zeuden profesionalek parte hartzeko baimena eman ahal izango da, hori justifikatzen duten berariazko inguruabarrak daudenean.

- El equipo de intervención podrá imputar una coordinación interna bimensual entre profesionales (terapia y educación), o, en su caso, una sesión de supervisión, especialmente en intervenciones de carácter exclusivamente socioeducativo.

Fase de cierre de la intervención

La fase de cierre de la intervención tendrá una dedicación máxima de 1 hora, distribuida del siguiente modo:

- 30 minutos para el análisis conjunto entre la persona profesional de trabajo social responsable del caso y el equipo de intervención, a fin de preparar el cierre del proceso.
- 30 minutos para la sesión de cierre con la familia.

**2.1.8- Criterios para la asignación de los casos**

La derivación de los casos a la empresa adjudicataria se realizará desde el Departamento de Acción Social, previa aprobación del Plan de Caso por parte de la persona responsable del programa.
Una vez derivado el caso, la entidad adjudicataria propondrá el equipo profesional encargado de la intervención, de conformidad con el Plan de Caso elaborado por la persona profesional de trabajo social referente.

En aquellos supuestos en los que una familia procedente de otro municipio esté siendo atendida en un programa de intervención socioeducativa y/o psicosocial y traslade su residencia al municipio de Pasaia, podrá autorizarse la continuidad de la intervención con los mismos profesionales.

Asimismo, de manera excepcional y debidamente motivada, podrá autorizarse la participación de profesionales no incluidos inicialmente en el equipo propuesto, cuando concurran circunstancias específicas que así lo justifiquen.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
**Tel.** 943 004330
Gizarte ekintza

## 2.1.9- Gizarte Ekintza Saileko langileen eginkizunak

### a) Kasuaz arduratzen den gizarte-laneko profesionala

Kasuaren ardura duen gizarte-laneko profesionalak gidatuko du babesgabetasun-arriskuko egoeretan esku hartzeko prozesua, jakinarazpena jasotzen denetik esku-hartzea ixten den arte.

Eginkizunak:

- Familia balioespen- eta esku-hartze-prozesuan parte hartzeko motibatzea.
- Kasuaren ikerketa eta/edo balorazioa egitea edo dagokion programara bideratzea.
- Familiari balorazioaren emaitzak itzultzea, baita adingabeei ere, hala dagokionean, eta, nolanahi ere, 12 urtetik aurrera.
- Hasierako kasu-plana egitea.
- Esku hartzeko taldearen esleipena koordinatzea eta beharrezko dokumentazioa ematea.
- Prozesuaren jarraipena egitea eta Kasu Plana berrikustea (gehienez 6 hilabetera, edo 4 hilabetera, 2 urtetik beherakoak badaude).
- Koordinazio-bilerak deitzea eta jarraipen-edo itxiera-txostenak eskatzea.
- Esku-hartzean doikuntzak sartzea, kasuaren bilakaeraren arabera.
- Esku-hartzearen hasiera eta amaiera zehaztea, txosten teknikoetan eta helburuen betetze-mailan oinarrituta.

### b) Haurtzaroko programaren arduraduna

Eginkizunak:

- Haurren arloko jakinarazpenak jasotzea.
- Kasuen eta espedienteen erregistroa kudeatzea eta eguneratzea.
- Zerbitzuaren fakturazioaren jarraipena eta kontrola.
- Baliabide nahikorik ez dagoenean itxaron-zerrenda kudeatzea, lehentasun-

## 2.1.9- Funciones del personal del Departamento de Acción Social

### a) Persona profesional de trabajo social responsable del caso

La persona profesional de trabajo social responsable del caso liderará el proceso de intervención en situaciones de riesgo de desprotección, desde la recepción de la notificación hasta el cierre de la intervención.

Funciones:

- Motivar a la familia para su participación en el proceso de valoración e intervención.
- Realizar la investigación y/o valoración del caso o derivarlo al programa correspondiente.
- Devolver a la familia los resultados de la valoración, incluyendo a las personas menores cuando proceda y, en todo caso, a partir de los 12 años.
- Elaborar el Plan de Caso inicial.
- Coordinar la asignación del equipo de intervención y facilitar la documentación necesaria.
- Realizar el seguimiento del proceso y revisar el Plan de Caso (máximo a los 6 meses, o 4 meses en caso de que existan menores de 2 años).
- Convocar reuniones de coordinación y solicitar informes de seguimiento o cierre.
- Introducir ajustes en la intervención en función de la evolución del caso.
- Determinar el inicio y finalización de la intervención, en base a los informes técnicos y al grado de cumplimiento de los objetivos.

### b) Persona responsable del programa de infancia

Funciones:

- Recepción de las notificaciones en materia de infancia.
- Gestión y actualización del registro de casos y expedientes.
- Seguimiento y control de la facturación del servicio.
- Gestión de lista de espera en caso de

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
Tel. 943 004330
Gizarte ekintza

irizpideak aplikatuta:

- Adingabeen adina
- Esku-hartze mota
- Larritasun-maila
- Kasu planaren data
- Familiaren funtzionamendua
- Babesgabetasun-arriskuaren tipologia

insuficiencia de recursos, aplicando criterios de priorización:

- Edad de las personas menores
- Tipo de intervención
- Nivel de gravedad
- Fecha del Plan de Caso
- Funcionamiento familiar
- Tipología de riesgo de desprotección

## 2.1.10- Enpresa esleipendunaren eginkizunak eta betebeharrak

Erakunde esleipendunak zerbitzua behar bezala gauzatzen dela bermatu beharko du, agiri honetan eta gainerako kontratu-agirietan ezarritakoaren arabera.

Betebeharrak:

- Familiei arreta ematea Kasu Planean jasotako denboran, maiztasunean, espezializazioan eta eskakizunetan, kasuaren arduradunaren jarraibideei jarraituz.
- Zerbitzua ezarritako eta baimendutako baldintzetan ematea, alderdi teknikoei, denborari eta alderdi ekonomikoari dagokienez.
- Jarduteko protokoloak errespetatzea eta betetzea.
- Ezarritako ordu/saioen gehieneko mugak ez gainditzea.
- Talde profesionalaren egonkortasuna bermatzea eta profil baliokideak dituzten ordezkapenak egitea.

Zerbitzuaren antolaketa:

- Taldeko arduradun bat izendatzea, honako hauek bere gain hartuko dituena:
  - Kasuak jasotzea.
  - Profesionalak esleitzea.
  - Gainbegiratze teknikoa.
  - Elkarrizketa udalarekin.
  - Esku-hartzea familia aurkezten denetik gehienez 15 eguneko epean hastea.

Koordinazioa eta informazioa:

- Udaleko gizarte-zerbitzuek eskatutako informazioa ematea.
- Esku hartzeko prozesuan izandako

## 2.1.10- Funciones y obligaciones de la empresa adjudicataria

La entidad adjudicataria deberá garantizar la correcta ejecución del servicio conforme a lo establecido en el presente pliego y el resto de la documentación contractual.

Obligaciones:

- Atender a las familias en tiempo, frecuencia, especialización y requerimientos recogidos en el Plan de Caso, siguiendo las indicaciones del / de la responsable de caso.
- Ejecutar el servicio en las condiciones técnicas, temporales y económicas establecidas y autorizadas.
- Respetar y cumplir los protocolos de actuación.
- No superar los límites máximos de horas/sesiones establecidos.
- Garantizar la estabilidad del equipo profesional y cubrir sustituciones con perfiles equivalentes.

Organización del servicio:

- Designar una persona responsable del equipo que asumirá:
  - Recepción de casos
  - Asignación de profesionales
  - Supervisión técnica
  - Interlocución con el Ayuntamiento
  - Iniciar la intervención en un plazo máximo de 15 días desde la presentación de la familia.

Coordinación e información:

- Facilitar la información requerida por los servicios sociales municipales.
- Informar de forma inmediata al / a la

edozein aldaketa esanguratsuren berri berehala ematea kasuaren arduradunari (profesionalen bajak, familia-inguruneko aldaketak, familiak saioetara etengabe ez joatea, bizikidetza-unitatearen aldaketak...).

